

**TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO
PROZESUA**

ESKUALDEKO ORDEZKARI POLITIKOekin BILERA:

1. BILERA

Data: 2019/12/10

Ordutegia: 19:00-20:30

Lekua: Tolosako Udala

PARTE-HARTZAILEAK	GAI-ZERREDA
Alkizako alkatea Anoetako zinegotzia Baliarraingo zinegotzia Ibarako zinegotzia Asteasuko alkatea Bidania-Goiazko alkatea Zizurkilgo zinegotzia Zizurkilgo zinegotzia Berastegiko alkatea Tolosako alkatea Tolosako zinegotzia Tolosako idazkaria Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurkezpenak egin 2. Orain arte egindako lana partekatu 3. Tolosako Udalak egindako urratsak nahiz landutako proposamenak aurkeztu eta kontrastatu 4. Ikasturte honetako planteamendua partekatu 5. Besterik 6. Hurrengo bilera-eguna adostu
Elhuyar Aholkularitzako teknikaria	

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO PROZESUA

GAIA	AZALPENAK
1.	<p>AURKEZPENAK EGIN</p> <p>Erregistro-orria bete dugu Datuen Babeserako Legeak jasotzen duena aintzat hartuta.</p> <p>Tolosako Udaleko alkateak hartu du hitza, parte-hartzaileei ongi-etorria emateko. Bestalde, aipatu du Udal-barruko antolaketa-aldaketan murgilduta egon dira azken hilabeteetan. Antolaketa berriaren baitan, Udala 3 batzorde nagusietan banatu da: Antolaketa; Lurralde eta Herritarrak. Berdintasun-politikak Herritarren batzordean landuko dira. Berdintasun Batzordearekin jarraitzea erabaki dute, eta Kontseilu gisa egituratu bitartean, “Berdintasuneko lan-mahaia” bezala izendatu dute. Bertan, orain arte bezala, Udaleko arduradun politiko eta teknikoek nahiz mugimendu feministako, emakumeen elkarteetako ordezkariak, eta gaian interesa duen orok hartuko dute parte.</p> <p>Ondoren, aurkezpen-erronda egin dugu: bakoitzak bere izena eta nondik datorren. Gaurko bileran landuko ditugun gaiak aurkeztu ditugu.</p>
2.	<p>ORAIN ARTE EGINDAKO LANA PARTEKATU</p> <p>Tolosaldeko Emakumeen Etxea zehazteko prozesuaren 1. fasean (2018ko maiatzetik 2019ko urtarrilera bitartean) landutako nondik norakoak azaldu ditugu, PPT-ko aurkezpena erabiliz.</p> <p>Behin aurkezpena bukatutakoan, balizko zalantzak argitzeko tartea utzi dugu; baina ez denez galderarik egin, bilerarekin aurrera jarraitu dugu.</p>
3.	<p>TOLOSako UDALAK EGINDAKO URRATSAK NAHIZ LANDUTAKO PROPOSAMENAK AURKEZTU ETA KONTRASTATU</p> <p>Tolosako Udaleko alkateak eta berdintasun-teknikariak hartu dute hitza, Tolosako Udalak azken hilabeteetan eman dituen urratsak eta Emakumeen Etxearen</p>

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO PROZESUA

GAIA	AZALPENAK
	<p>egitasmoarekin lotuta dituen proposamenak aurkezteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak urrats hauek eman ditu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Otsailaren 18an Tolosaldeko udal-ordezkeri politikoekin bilera egin zen, prozesuaren 1. fasean emakumeek landu zuten egitasmo-proposamena aurkezteko. ○ Mozio-eredua landu da egitasmoari babesa emateko eta egitasmoarekiko konpromisoa adierazteko; eta eskualdeko ordezkeri politikoekin otsailaren 18an egindako bileran aurkeztu zen. ○ Lantalde Politiko Teknikoaren bilerak egin dira. ○ Etxearen txosten teknikoa aurkeztu da, Etxearen aurreproiektua onartzeko eta proiektuaren idazketaren kontratazio-espedituari hasiera emateko. • Ondoren, prozesuaren 1. fasean eta Emakumeen Etxearen definizioarekin lotuta, emakumeek adostutakoaren gainean Tolosako Udalak dituen proposamenak aurkeztu ditu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxearen kudeaketari dagokionez, erabakigune partekatua izatea proposatzen da: Etxearen kudeaketa Tolosaldeko udalen eta Tolosaldeko talde feministen eta emakumeen elkartearen artean elkarbanatzea. Gune horretan, Etxean parte hartu nahi duten Tolosaldeko talde feministetako nahiz emakume-elkarteetako ordezkariek eta Tolosaldeko udaletako ordezkeri politiko eta teknikoek hartuko lukete parte; eta baita Etxearen dinamizatzailerak ere. Udalek nahiz emakumeek ordezkaritza-kopuru bera edukiko lukete. Erabakiak kontsentsuz hartuko lirateke. Zer erabakiko luke talde horrek? Etxearen kudeaketarekin lotutako alderdiak: urteko jarduerak eta zerbitzuak, plangintza, etab. ○ Etxearen funtzionamenduari dagokionez, emakumeen eta eskualdeko udalen artean lokal-lagapenaren hitzarmena adostea proposatzen da, besteak beste, Etxearen funtzionamenduari lotutako alderdiak jasotzeko, eta, horretarako, Etxearen elkartearen sortzea proposatzen da, nortasun juridiko propioa edukitzeko.

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO PROZESUA

GAIA	AZALPENAK
	<p>Emakumeek diru-partida propioa edukitzea ere planteatzen da jarduerak programatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Dinamizatzaileari dagokionez, profil hau edukitzea proposatzen da: lanaldi osoko lan-jarduna edukiko luke, genero-berdintasuneko ikasketa espezifikoak edukitzea eskatuko litzaioke (gutxienez 150 orduko prestakuntza), eta berdintasun-teknikariaren lan-kategoria bera edukiko luke. Lan-ordutegia zehaztu egin beharko litzateke. <p>Ondoren, Tolosako Udaleko Ogasuneko zinegotzia den Begoña Tolosak Etxearen finantziarioarekin lotuta landu duten proposamenaren inguruko xehetasunak eman ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Tolosako Udalak ekarpen hau egingo luke: Etxearentzako aurreikusitako bi lokalak, horien hornidura eta eraikuntzaren egiturazko inbertsioak: teilatua, zorrotena (“bajante”)... ● Etxearen zerbitzu eta jardueri dagokienez, Tolosako Udalak gaur egun ematen dituen zerbitzu eta jarduerak eskaintzen jarraituko du, Udalaren aurrekontuaren kontra (hezkidetza-programak, jabeakuntza eskola...). <p>Emakumeen Etxearen irekierarekin, zerbitzu eta jarduera berriak sortzea aurreikusten da, eta giza baliabideen behar gehiago sortuko dira: dinamizatzailea kontratatu beharko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Gastuen estimazio hau egin du Tolosako Udalak: <ul style="list-style-type: none"> ○ <u>Mantenu-gastuak</u> (ura, gasa, elektrizitatea): 24000 €. Tolosako kultur etxearen zenbakiak hartu dira aintzat kalkulua egiteko. ○ <u>Zerbitzu berrien gastuak</u> (3-4 zerbitzu aurreikusi dituzte): 25000 € ○ <u>Aparteko jardueren gastuak</u> (emakumeek euren aldetik antolatuko dituzten jarduerenak): 37000 € ○ <u>Dinamizatzailearen gastua</u>: 52000 € (oinarrizko soldata, ordainsari osagarriak, gizarte segurantzaz...) ● Gastuak ordaintzeko irizpide gisa proposatzen da udaletxe bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera egitea banaketa, alegia,

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO PROZESUA

GAIA	AZALPENAK
	<p>udal bakoitzaren aurrekontu arruntaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Tolosako Udalak gastu hauek hartuko lituzke bere gain: eraikina + hornidura + mantenua + zerbitzu berriak + jarduerak ○ Tolosaldeko udalek gastu hauek hartuko lituzkete beren gain: mantenua + zerbitzu berriak + jarduerak + dinamizatzailea <p>Udal bakoitzak ordaindu beharko lukeen diru-kopurua kalkulatzeko, adostu dugu gaurko bileraren aktarekin batera udalei eskatzea emailaz bidaltzeko euren aurrekontuko lehen bost kapituluaren batura; horrela Tolosako Udalak udal bakoitzak ordaindu beharreko kopurua kalkulatu du.</p> <p>Ondoren, Begoña Garmendia Tolosako Udaleko idazkariak hartu du hitza, juridikoki dauden eredu ezberdinak azaltzeko:</p> <p>a) Udalen artean lankidetzaren hitzarmena egitea, aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Hitzarmenean finantzaketarekin lotutako xehetasun guztiak jasoko lirateke, eta baita funtzionamenduarekin zerikusia duten alderdiak ere (erabakiak nola hartu...). Etxearen egitasmoan parte hartuko luketen udal guztiek sinatu beharko lukete.</p> <p>Lankidetzaren hitzarmenak iraupen mugatua du, legez 4 urte iraun dezake indarrean, beste 4 urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin; baina luzapen hori espresuki adostu egin behar da.</p> <p>Hitzarmena edukitzeak ez dakar nortasun juridiko propioa edukitzea. Horrek zailtasun batzuk sor ditzake pertsonak kontratatzeke garaian, ez dagoelako berriazko erakunde kontratatzailerik. Honenbestez, udalen artean formulak adostu beharko lirateke kontratazioa bideratzeko eta horren segimendua egiteko.</p> <p>b) Mankomunitatearen bidez egitea dinamizatzailearen kontratazioa. Erakunde publikoa da, iraunkorra da, kontratazio-baldintzak ezartzeko gaitasuna du... Halere, estatutuak aldatu behako lirateke, kompetentzien artean berdintasuna txertatzeko, eta horrek denbora eskatzen du. Denboratarte horretarako elkarte bat sortzea litzateke beste aukera bat.</p>

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA: EGITASMOA GARATZEKO PROZESUA

GAIA	AZALPENAK
	<p>c) Tarteko bidea: udalen artean elkartea eratzea, besteak beste, Etxearen jarduerak kudeatzeko. Nortasun juridikoa edukiko genuke, kontratuak egiteko ahalmenarekin, eta ez luke iraupen mugatua edukiko. Finantzaketa partekatua nontik norakoak (udal bakoitzak egin beharreko diru-ekarpena, udal bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak eta abar) akordio baten bidez zehaztu beharko litzateke.</p> <p>Begoñak nabarmendu du aukera hauek guztiak tresna posibleak direla, gero edukiz betetzeko.</p>
4.	<p>IKASTURTE HONETAKO PLANTEAMENDUA PARTEKATU</p> <p>Prozesuaren urritik uztailera bitarte iraungo duen 2. fase honetarako proposatu ditugun helburuak, lanketa-gai nagusiak, lanerako guneak eta gune bakoitzak egitea aurreikusi ditugun bilera-kopurua aurkeztu dugu.</p> <p>Bukaeran, tarte bat zabaldu dugu sortu diren zalantzak argitzeko. Besteak beste, eskualdeko emakume-elkarte eta talde feministen mapeoa egitearen garrantzia azpimarratu da, prozesuan ahalik eta emakume gehienek parte hartu dezaten.</p>
5.	<p>HURRENGO BILERA-EGUNA ADOSTU</p> <p>Hurrengo bilera-eguna aurrerago zehaztea adostu dugu.</p>